

"Telmo Zarrak 'onena zara' esaten zidan"

Athleticen historiako atezainik onenetakoa da Carmelo Cedrun. 50eko hamarkadako izar asko 'San Mameseko harresia' eraitsi ezinik geratu ziren sarritan. Zarra, Gainza eta enparauen laguntzagaz, hainbat txapelketa irabazi zituen eta makina bat anekdotaren protagonista izan zen. "Zenbat gauza bizi izan ditudan", dio orduko sasoiak gogoratuz. Ez dio gezurrik. • 2-3



LEHIOR ELORRIAGA

*"Guri egokitu zaigu
Intxortaren urteurrena
bizitzea, baina gure
aurrekoei esker izan da"*



Alaitz Urrutxi eta Malen de la Fuente
Intxorta Asti Elkarte • 4

**Hitez eta Ahotsez irakurraldia
egingo dute 'askatasuna' gaitzat
hartuta, Plateruenean, gaur**

Durango | 300 parte-hartzailek baino gehiagok eurek aukeratu
edo sortutako testuak irakurriko dituzte. • 16



**Udalen geroa
erabakiko duten
hauteskunde
kanpaina hasi da**

Durangaldea | Bart hasi
zuten alderdiek hauteskunde
kanpaina. Eskualdeko 13
herrietan ere bete-bete
sartu dira lehian.

10. orrialdean



Maiatzaren 15etik ekainaren 15era

**HILABETE
ITZELA**

6.400 €

zure neurriko finantziazioarekin

SCHMIDT

Zu ez zarela besteak bezalako

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño

www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen



LEHIOR ELORRIAGA



Carmelo Cedrún
Ochandategui
Athletic taldeko
atezain ohia
Zornotza | 1930

“Bilbon egiten zizkiguten harrerak gogoratzen ditut. Zenbat jende! Ordu bi Atxuritik udaletxera”

Durangotik umoretsu eta hau eta bestea agurtuz paseatzen ibiltzen den aitita ilezuriaren atzean, Athleticen historiako atezainik onenetakoa dago. 'Harresia' ezizenez ezagutzen zuten eta Liga bat eta hiru Kopa irabazi zituen, 50eko hamarkadan. "Zenbat gauza bizi izan ditudan bitzita honetan!", gogoratu du. Ez dio gezurrik.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Euskaldunak autentikoak ote diren deskubritu gura dute ETB 1en oraintsu estreinatu den saio berrian. Bada, Carmelo Cedrún gonbidatzen badute, duda guztiak uxatuko dituzte. Autentiko berbaren definizioa da Athletic Club-eko atezain ohi mitikoa. Ez da gauzak aditzera ematekoa; pentsatzen duena esaten du. Bere ibilbide oparo eta arrakastatsuko pasarteak, oso bitxiak zenbait kasutan, atzo gertatu balira moduan gogoratzen eta kontatzen ditu. Kontatu beharrean deklamatu egiten dituela esatea zehatzagoa da. **Barrutik bor-bor irteten zaizkio. Biografia mamitsu baterako materiala du gordeta 89 urteko zornotzarrak.**

Umetatik izan zenuen futbolerako joera?

Baserrri bat geneukan eta etxarean askotan ibiltzen ginen futbolearen, baloiari ostikoak eman eta eman. Umetatik izan dut futbolerako joera. Gero, koskortu nintzenez, Jesuitetan itzelezko torneoak egiten zituzten eta haieran jokatzeko nuen.

Zure lehenengotako taldea Amorebieta futbol kluba izan zen.

Athleticek utzita joan nintzen hara. Kazetariak niri buruz idazten zuten. Bazegoela oso indartsu zeterren gazte bat eta antzerakoak idazten zituzten. Zenbat partidu jokatu nituen, ba, Amorebieta-gaz? Hamabi bat. Horren ostean, Athleticek berriro eraman ninduen Lezamara.

Zer sentitu zenuen aldageletara sartu eta Zarra, Panizo, Gainza eta enparauak lehenengoz ikusi zenuen uanean?

Ikara! Ni horrelako jokalarien artean egotea itzela zen eta errespetua eragiten zidan. Baina asko lagundu zidaten den-denek, hasieratik. Telmo Zarrak asko estimatzen ninduen. San Mamesera irten aurretik, tunelean, "onena zara" eta antzerakoak esaten zizkidan. Orduan, Jose Iraragorri zen entrenatzailea, eta hark ere animatzen ninduen: "Begira, hemen izar asko daude, baina zeu zara onena! Eurak baino gehiago emateko kapaz zara!". Nik barretxo bategaz erantzuten nion, baina ezin dut berbekin adierazi hori entzuteak zelako segurtasuna, lasaitasuna eta motibazioa ematen zizkidan. Badakizu zelako jokalaria zeuden talde hartan, ala? Orduko onenak ziren gero!

Jokalaria moduan, zein gustatzen zizaitzun gehien?

Denak, baina Zarrak partidu asko irabazten zituen. “Bota niri baloia”, eskatzen zuen partiduetan. Fenomeno bat zen.

Orduan, Raimundo Perez Lezama hamarkada bat zeraman Athleticen atea zaintzen. Beste mito bat zen. Zu heldu zinenean arrisku moduan ikusi zintuen ala ondo konpontzen zineten?

Lezama esaten zidan: “Postua kenduko didazu!”. Eta ni, ba, imajinatu, 16 urtegeaz, zer esan ez nekiela.

Beraz, sumatzen zuen zer bait?

Entrenamenduan lehenengoz ikusi ninduenetik ohartu zen.

“**Zenbat taldetik deitu ote zuten nire etxera! Real Madriletik ere bai. Di Stefanok bere taldean gura ninduen**”

1951ko apirilean, Athletic eta Sevillearen arteko partidu batean debutatu zenuen. 3-0 irabazi zenuten.

Penalti bat geratu nuen! Eta atea hutsean mantendu nuen. Ezin nuen gehiago eskatu. Partiduaren aurretik Iraragorrik esan zidan: “Irten zelaira eta erakutsi onena zarela!”. Eta, egia esanda, pentsatzen nuena baino lasaia zela iratzen nintzen.

Athleticen titular ukalezina zinen sasoiaren, izan zenuen eskaintzarik klubetik irteteko?

Zenbat taldetik deitu ote zuten nire etxera! Real Madriletik ere bai, ze Di Stefanok bere taldean gura ninduen. “Ekarri ezazue baserritar hori!”, esaten omen zion klubeko presidenteari. Baina etxean aitak eta amak “Athleticen bakarrik!” esaten zidaten. Gainera, Athletic ondo portatzen zen nigaz.

Athleticen belaunaldi mitiko bi ezagutu zenituen. Zarra, Panizo eta besteak joan zirenean, Arieta, Uribe, Garay... etorri ziren. Bigarren belaunaldi hura ere arrakastatsua izan zen.

Arieta aurrelariak ez zuen Zarraren famarik izan, baina bikaina izan zen. Atearen aurrean pozoina zuen. Jende ona etorri zen, egia esanda. Haietako epoka bat markatu zuten. Aurreko belaunalditik Gaiñak jarraitu zuen beste urte batzuetan. **Bigarren belaunaldi hark, esaterako, Kopa bat irabazi zion Real Madrili, non eta euren etxean, orduan Chamarin deitutakoan. '11 baserritarren Kopa' izenagaz ezagutzen dena.** Bai, 2-0 irabazi genien. Batzuei ez zitzaizkien asko gustatu. Gogoan dut amaieran, garaikurra jasotzera igo ginenean, zelan esan zion Francori ondoan zeukan batek: “Berritako ere euskaldun hauek irabazi behar! Kasuen!”. Eta hori entzutean, Piru Gaiñak esan zion: “Txapeldunak gara eta datorren urtean ere izango gara”. Garbi-garbi entzun nuen, bere atzean nindoa eta.

Eta 1955-1956 denboraldian, biak irabazi zenituzten, Liga eta Kopa. Zer gogoratzen duzu denboraldi hartatik?

Bilbon egiten zizkiguten harrerak gogoratzen ditut. Zenbat jende! Autobusean, Atxuritik udaletxeraino ordu bi behar izan genituen. Edo gehiago. Une horietan ez ditut sekula ere ahaztuko.

Beste partidu mitiko bat. Europako Kopan Manchesterren kontra jokatu zenuena, San Mames elurragaz zuri-zuri zegoela. 5-3 irabazi zenuten. Zaleak zutik eta txaloka agurtu zintuztela irakurri dit.

Bai, zer izan zen hura! Partidu eder eta jokatu genuen eta betiko gertatu da hor. Dena elurtuta zegoen eta hotz ikaragarria egiten zuen. Une batez, jokoak geratu egin zuten,



Europako Kopa: Athletic-Manchester, San Mamesen, 1957an. Cedrun eskumatik bigarrena da. ATHLETIC CLUB MUSEOAREN AGIRITEGIA

lurrean zegoen jokalaririk bat artatzeko. Une horretan, kopa bat whisky ekarri zidaten, entrenatzailearen aginduz. Itzelean berotu ninduen! **Mundu honetan ezer ez da betiko, eta zuk Lezama aukira bidali zenuen moduan Jose Angel Iribarrek zu bidali zintuen. Ikusten zen hain ona zela?** Iribar heldu zenerako, erabakita neukan joatea. Pertsona oso abera-

“**Hotz ikaragarria egiten zuen eta jokoak gelditu zegoen une batean kopa bat whisky ekarri zidaten**”

tsa jarri zuten presidente Espanyol taldean, eta izar asko eramane zintuen. Ni ere hara joan nintzen. Hala ere, agerian zegoen Iribar oso ona zela, bai.

Espanyolera joan zinenean, Di Stefanok ere hantxe zebilen. Zer esan zizun '11 baserritarren kopa' irabazi zenietelako?

(Barrez) Denetarik. Baina ez horregatik bakarrik. Final horren aurretik, Ligan, ederra egin nion. Chamarin husna gindoazen eta 92. minutuan epaileak gure kontrako penaltia adierazi zuen. Di Stefanok bota behar zuen. “Ez bota, Alfredo”, esan nion. “Sentitzen dut, baina geratu egingo dizut”. Berak ere denetarik esan zidan. Bota zuten, eta itzelezko geldiketa! Kornerrera bidali nuen. Liga berean Kubalari beste bat geratu nion, Bartzelonaren kontra. Horrelako kontuak gogoratzen genituen Espanyolen. Ondo konpontzen nintzen Di Stefanogaz. Batzuetan elkarrekin joaten ginen hondartzara. Nik sekula ere ez dut bera baino jokalaririk hoberik ikusi. Messi, Maradona eta Pele baino hobea izan da.

Penaltiak geratzen abila zinen. Zelan asmatzen zenuen zein aldera botako zuten?

Penaltiak asko entrenatzen nituen. Orduak eta orduak. Jokalaria non kokatzen zen begiratu eta horren arabera igartzen nuen.

Espanyolen lau urte eman eta Estatu Batuetara joan zinen. Zelan sortu zitzaizun hara joateko aukera?

Baltimore Bays deitzen zen taldea. Espanyoleko presidentek taldea utzi behar zuen eta haren bitartez lortu nuen Estatu Batuetara joatea. Atletak batzuk ziren, baina ondo moldatu nintzen. Neu nintzen euskaldun bakarra. Ez nekien ingelesez, baina moldatzeko adina ikasi nuen. Bi-hiru urte eman nituen

han. Okerrena hegazkina hartu beharra zen. Nerbioa jartzen nintzen. Jausi egingo zela pentsatzen nuen. Horregatik bueltatu nintzen bi-hiru urte egin ostean.

Hegazkinak ez zaizkizu gustatzen.

Ez. Behin Ligako partidu bat jokatu behar genuen Espainia hegoaldean, baina autobusa hondatu egin zen. Hegazkina hartu behar. Azkenean, ez dakit zelan, konpondu zuten autobusa, eta hantxe joan ginen. Eta hartu behar genuen hegazkin hori jausi egin zen! Ia denak hil ziren. Athleticeko jokalaririk bat hil zen eta

“**Di Stefanori esan nion: 'Ez bota penaltia. Sentitzen dut, baina geratu egingo dizut'. Eta itzelezko geldiketa!**”

bere emaztea ere bai. Zenbat gauza bizi izan ditudan bizitza honetan! **Ñaki Williamsek 115 partidu segidan jokatu ditu Athleticen. Errekorra zeuk daukazu, 132 partidugaz. 1952tik 1957ra artean izan zen hori.** Orduan gaixotu ere ez ginen egiten eta! Inoiz ere ez nuen lesio bat izan. **Pena emango lizuke Williamsek zure errekorra gaintitzeak?**

Ez. Gura nuke nire marka pasatuko balu. Beharbada horrek esan gura luke Athletice txapelketaren bat irabazi duela. Egia esan, horixe da nire ilusioa!

Zure gaineko biografia bat idatziko balute, zein izenburu jartzea gustatuko litzaizuke?

[Pentsatzen geratu da]. Beharbada hauke: 'Espero zena sobera kunplitu zuten atezaina'.



Cedrun eskuman 'Hamaika baserritarren Kopa' lez ezagutzen den finalean. Real Madrilen zelaietan jokatu zen, 1958an. ATHLETIC CLUB MUSEOAREN AGIRITEGIA

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

30 urte bete dira Intxorta Asti Elkartea sortu zenetik Elorrion. Bihar, maiatzak 11, aisialdi elkartearen urteurrena ospatuko dute egun osoko jaialdi batez.

Astebururako Intxorta Asti Elkartearen urteurren jaia antolatuz duzue. Zer aurkituko dute Elorrion joango direnek?

Alaitz Urrutxi: Goizean umeentzako tailerrak eta hainbat ekintza egongo dira herriko plazan, batez ere Intxortako adin tartea batzen duten umeentzat. Horregaz emango diogu hasiera egunari, Intxortako izaera duten ekimenekin.

Malen De La Fuente: Horren ostean, elorriar guztiak gonbidatuta dauden herri bazkari bat egingo dugu, eta arratsaldean, plazara jaitsiko gara, elektrotarangagaz. Urteurren jaialdiari Akerbeltz taldearen erromeriagaz emango diogu amaiera, Intxortak merezi duen moduan.

“Elorrion elkarte asko daude, eta gurea presentzia handia duenetako bat da”

Dagoeneko 30 urte pasatu dira aisialdi elkarte sortu zenetik. Zer da herriarentzat Intxorta?

M.D.: Intxorta Elorrioko herrigintzan dabilen ezinbesteko taldea da. Elorrion elkarte asko daude, eta gurea presentzia handia duen elkarteetako bat da. Gehienbat umei eta gaztetxoei zuzenduta dago, baina urte guztian zehar hainbat jardura egiten ditugu eta horri esker adin tarte guztietara heltzen garela esan dezakegu. Esaterako, udan, kanpamentuak muntatzerako orduan, jende helduak laguntzen digu, eta lanean gabiltzan arren, momentu benetan politak pasatzen ditugu elkarrengaz. Horrek harremanak sortzeko balio izaten digu.

A.U.: Gainera, horri esker, Intxortak nola funtzionatzen duen ikusi dezakete gurasoek, eta begiraleok ere hobeto ezagutzen gaituzte.

“Intxorta taldeak xarma berezia du eta elorriarrok asko maite dugu”

Maiatzaren 11n Intxorta Asti Elkartearen 30. urteurren jaia ospatuko dute Elorrion



Elorriarren artean, nolako harrera duzue?

A.U.: Harrera oso ona du taldeak. Umeak irrikan egoten dira udako kanpamentuetara joateko, baita asteburuetan Intxortara joateko ere. Elkarteak harrera ona duen seinale da hori.

M.D.: Taldean parte hartzen duten umez gain begiraleok ere izaten dugu irrika hori. Ume sasoia atzean utzi eta gero, oraindik taldeari lotuta jarraitzen dugula konturatu gara herritarrok, begirale lanetan, sukaldari, laguntzaile... Intxorta taldeak xarma berezia du eta elorriarrok asko maite dugu.

“Guri egokitu zaigu urteurren hau bizitzea, baina gure aurrekoei esker ere izan da”

Intxortako ume izandako begiraleak zarete. Umetako zein oroitza-pen duzue?

M.D.: Garai oso onak eta oso zorroak bizi izan genituen, eta orduko oroitza-pen ederrak baino ez ditugu, egia esan. Gaur egun ere horrela bizi izaten jarraitzen dugu.

Zer esango zenikete oraindik Intxortako kide ez den Elorrioko ume bati?

A.U.: Probatzera animatuko nuke. Probatu dugunok ez dugu inoiz ere utzi gura izan.

M.D.: Gainera, probatzeko aukera asko daude. Horietako bat zapatuko jaialdia izango da.

Beste zerbaite gehitu gura duzue?

M.D.: Guri egokitu zaigu urteurren hau bizitzea, baina esan beharra daukagu gure aurrekoei esker izan dela hori. Intxortako sortzaile eta begirale izandako guztiei eskerrak eman gura dizkiegu 30 urte hauetan egin duten lan eder eta oparoarengatik.

Egitarau zabalagaz ospatuko dituzte Bernagoitiko jaiak, hilaren 18an

ZORNOTZA • J.D.

Prest dago maiatzaren 18an Bernagoitian ospatuko dituzten jaientarako egitaraua. Auzorik auzoko mendi ibilbide batez hasiko dute eguna. Bazkaritara

Trikitilarien kalejiraren ostean, 22:00etan, Dube eta Storm taldeen kontzertuak hasiko dira

batu aurretik, pilota partiduak egongo dira, 12:00etan. Arratsaldean zehar umeen jolasak egongo dira eta trikitilarietara kalejira egingo dute. 22:00etan Dube eta Storm taldeen kontzertuak hasiko dira.

Berrizko Udala ETSgaz hartu-emanen dabil Arkaraz kalea konpontzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen asteko osoko bilkuran Orland Isoird alkateak jakitera eman zuenez, Berrizko Udala eta Euskal Trenbide Sarea hartu-emanen dabilta hitzarmen bat sinatzeko. Trenbide ondoan dagoen Arkaraz kalea berrurbanizatzea da hitzarmenaren helburua. Lan hauen bitartez, tren estazioarako sarrera hobetuko dute. "Lanok, derrigorrezkoa den hobekuntza baterako lehen pausoa emango dugu", adierazi zuen Isoirdek.

Sarrera hobetzeaz gain, aparkalekuak berrantolatu, oinezkoentzako espaloiak zabaltu eta irisgarritasuna bermatuko dute, besteak beste. 28.000 euro bideratuko dituzte lanak egiteko.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko maiatzaren 10a
17. urtea - 762. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Kulturaren eta Hizkuntzaren Departamentuaren Erakunde Publikoa

PEFC aurtegia
Produktu hau
kontsumatzaile
entzulearen onurarako
egia dela, biziak
da eta Biko-Industria
Instituzioaren
aurtegia dela
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Rio de Oro elkarteak Sahararen aldeko jaialdiaren zazpigarren edizioa ospatuko du Durangon

Elkarteak dituen helburuen zabalpenerako eta ospakizunerako jaialdia maiatzaren 18an egingo dute, Tabiran



Aurreko edizioetan ere jende ugari batu izan da Tabirako zelaian.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Rio de Oro elkarteak Sahararen aldeko dinamika bultzatzen ditu, gatazkaren berri eman eta Tindoufeko (Aljeria) kanpamentuetan bizi diren errefuxiatuei laguntzeko. Ka-

rabana solidarioa, umeak etxeetan hartzeko Oporrak Bakean programa, aniztasun funtzionala duten umeen udaleku proiektua... Ekin-tza horien bidez, Durangaldean herritar ugari sentsibilizatzea lortu

Ekintza horien bidez, Durangaldean herritar ugari sentsibilizatzea lortu dute urteotan

dute urteotan. Orain zazpi urtetik hona, zabalpenerako eta ospakizunerako erabiltzen duten jaialdia egiten dute, eta aurten maiatzaren 18an izango da, Durangoko Tabira auzoan.

Goizean umeentzako tailerrekin hasiko dute jaialdia, eta, bitartean, paella lehiaketa egongo da martxan. Inskripzioa Tabira-etxean, Arkarazonean edo Iurretako Gauargin egin ahal da. Bazkalostean bingoa jokatu dute, eta 18:00etan kalejira egingo dute elektrotxaranga batez. 21:00etan Sangre de mono, Guda dantza eta Dientes de luna taldeek kontzertua eskainiko dute, eta Maskaradun DJak jarraituko du gero.

Rio de Orokoak hasita daude aniztasun funtzionala duten umeen udalekua prestatzen

Arropa batzen

Rio de Orokoak hasita daude aniztasun funtzionala duten umeen udalekua prestatzen, Izurtzan. Aurten 4 eta 11 urte arteko umeak ekarriko dituztela esan dute, eta horientzat arropa batzen hasi dira, udan erabili ahal izateko: prakak, kamisetak, oinetakoak, bainujantziak... Landako eskolan maiatzaren 13tik 24ra utzi ahalko da arropa; Kurutzian, hilaren 20tik 31ra; eta Zabalarran, ekainaren 3tik 14ra.

Sexu erasoak salatu du emakume batek, eta bere bikotekidea atxilotu dute

DURANGO • J.D.

Durango emakume batek sexu erasoak salatu zuen domeka goizaldean, eta, ostean, bere bikotekidea identifikatu eta atxilotu egin zuten. 28 urteko zornotzar bat da gizona, Durango Udaletik informatu dutez. Erasoak 06:00etan gertatu egin ziren, bikotea bizi den etxean.

Durango Udaleko Berdintasun Batzordetik eta Berdintasun Kontseilutik erasoak gaitzetsi eta biktimari babesa erakutsi diote. Indarkeria kasu honen

Berdintasun Kontseilutik erasoak gaitzetsi eta biktimari babesa erakutsi diote

zein emakumeek jasan ditzaizketen erasoaren aurkako jarrera erakutsi dute.

Gainera, herritarrei dei egin zieten Andreak elkarteak atzarako antolatutako elkarretaraztean parte hartzeko.

Manifestazio isila eta besarkada hunkigarria errefuxiatuen alde

"Inor ez da ilegala" oihukatu zuten Landako Gunean elkartu ziren milaka lagunek



Zortzi zutabe osatu zituzten manifestariak. Gero, Landako Gunean espirala egin eta elkartzean besarkatu egin ziren.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Milaka lagunek errefuxiatuen aldeko besarkada kolektiboa egin zuten domekan Durango. Mobilizazio berezia bezain hunkigarria izan zen; manifestazio isila egin zuten zutabeetan banatuta, hildako migratzaileen izenak megafoniatik entzuten ziren bitartean. Landako Gunean amaitu zuten, elkar besarkatuta. Giza eskubideen, pertsonen eta

Sara Hawari palestinarra eta Rosario Mendibe bonbardaketako lekukoa besarkatu ziren

herrien aldeko eta neofaxismoaren aurkako ekimena izan zen. "Inor ez da ilegala" eta "ongi etorri errefuxiatuak" entzun ahal izan ziren, besteak beste.

Zutabeak osatu aurretik, eguneko beste une hunkigarrietako bat heldu zen: Durango bizi den Sara Hawari palestinarra eta Rosario Mendibe Durango bonbardaketaren lekukoa jendaurrean besarkatu ziren. Eraso haiek ekarri zituzten gogora Hawarik. "Geroztik, munduan nonahi izan dira, eta badira, hamaika Gernika eta Durango", esan zuten.

San Trokazetako jai batzordearen txosnako irabazien erdia Angelman Sindromearen elkarteari emango diote

Ateratzen duten etekinen beste erdia Zelaieta eskolako Guraso Elkartearentzat izango da



Angelman Sindromearen elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu azken urteetan.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Jai batzordeak San Trokazetan jarriko duen txosnan ateratako irabazi ekonomikoaren erdia Angelman Sindromearen elkarteari ematea erabaki du batzordeak; beste erdia Guraso Elkartearentzat izango da. "Elkartasuna azaldu gura diogu Abadiñon ikasle dagoen Haizeari", azaldu du Jaione Urien Guraso Elkartearen kideak. Izan ere, Angelman sindromedun ume

Eskolako umeek pankartak egin dituzte abadiñarrak gaiaz sentsibilizatzeko

batek ikasten du Abadiñon. "Beste herri batzuetan egiten den bezala, txosnetako etekinak beharrezana duten elkarten artean banatzea ideia ona dela deritzogu", gaineratu du Urienek. Bestalde, eskolako umeek pankartak egin dituzte abadiñarrak gaiaz sentsibilizatzeko. Aurten, Haizea bera arduratuko da jaietan Gerbas aireratzeaz.

Elkartasun maratonia

Bestalde, haur minbiziaren aurkako III. spinning maratonia egingo dute, ekainaren 8an eta 9an. Izenematea pedaleaporunasonrisa.com helbidean egin daiteke.

Irizpide malguagoak dituen hiriguneko eraikuntzen araudia onartu dute

OTXANDIO • J.D.

Aurten arte Hirigune Historikoko eraikuntza araudia aplikatzen zen herrigune osoan. Hori bereiztea erabaki du udalak. Ordenantza berri bat landu du Hirigune Historikotik kanpora geratzen den eremurako, eta joan zen asteko udalbatzarrean hasierako onarpenera eman zioten. Orain alegazioak egiteko epea hasiko da, eta ondoren onartuko dute behin betiko. Ordenantza berriak kriterio "mal-

Alegazioen epea amaitzen denean onartuko dute ordenantza berria behin betiko

guagoak" dituela azaldu zuen Urtzi Armendariz alkateak.

Hirigune Historikoko ordenantza ere eguneratzen ari dira. Urtea amaitu orduko ordenantza biak indarrean egotea da udalaren helburua.

Oinezkoak babesteko, 450 metroko baranda bat jarriko dute N-634 errepide alboan

ZALDIBAR • A.M.

Oinezkoak babesteko asmoagaz, 450 metroko baranda bat jarriko dute N-634 errepide alboan, San Andresetik hasita Artiako bidegurutzeraino dagoen espaloi zatian. Obrak 40.000

Errepidean baranda jartzeko, 40.000 euroko diru partida izango dute

euroko diru partida izango du Zaldibarko Udalean. Eneritz Azpitarte alkatearen berbetan, 2019ko aurrekontuko proposamena da hau, "zaldibartarren segurtasuna handitzeko inbertsioa".

Horrez gainera, udalak Bizkaiko Aldundiaren diru-laguntza lortu du Agirre parkeko jolas eremua estaltzeko; proiektuaren kostuaren %28 ordainduko du Aldundiak. Udazkenean hasiko dira parkea estaltzeko obrak.

Dantza saioagaz hasi eta Elikadura eta Landare Azokagaz amaituko dute Mañariko Aste Kulturala

Leire Etxaniz pilotariaren hitzaldia eta 'Tio Teronen Semeak' dantza ikuskizuna dira datorren asteko beste ekimen bi

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Aste Kulturalako ekitaldi sortaren barruan, Elikadura eta Landare Azokak 23. aldia egingo du maiatzaren 19ko domekan. 10:00etan askotariko 20 bat postu jarriko dituzte herriko plazan. Frontoian umeentzako tailerrak egongo dira eta 12:00etan herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Eguerdian 20 bat ahuma erreko dituzte plazan, eta pintxotan salduko dituzte. Azokaren harira, ahuntz

Azokaren harira, ahuntz azpigorrien erakustaldia eta txapelketa egingo dituzte, urtero legez

azpigorrien erakustaldia eta txapelketa ere izango dira, urtero legez.

Azokaren aurretik, makina bat ekimenekin gozatzeko aukera izango da. Bihar, 18:30ean, herriko dantzariak kalejiran irtengo dira eta, ostean, saioa eskainiko dute.




Askotariko 20 bat postu jarriko dituzte azokan.

Hurrengo egunean, 18:00etan, *Tio Teronen Semeak* izeneko dantza ikuskizuna egongo da ikusgai plazan. Musikariz eta dantzari osatutako talde honek euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du.


Eguenean berbaldia eskainiko dute Leire Etxanizek eta Baiko enpresako pilotari batek

Astean zehar berbaldi bi egongo dira: martitzenean erleei buruzkoa, 19:00etan, kultur etxean; eta Leire Etxaniz eta Baiko enpresako beste pilotari batek egunean eskainiko dutena, 18:00etan.

Azkenik, hilaren 18rako, goizean espeleologia txangoa antolatu dute Marko kobazulora. Arratsaldean, Mañaria, Sopena eta Ortueillako abesbatzek kontzertua eskainiko dute elizan, 19:00etan.



Durungaldeko txokorik ederrena



ARGAZKI LEHIAKETA

XEHETASUNAK

- Zein da zure **Durungaldeko txokorik gogokoena?**ARGAZKIA bidali eta azaldu zergatik duzun gustoko (30-50 hitz)
- Aurkezteko epea **maiatzaren 27ra arte.**
- Argazkia eta azalpena, durungaldea@ae.k.eus helbidera bidali, edo whatsapppez zenbaki honetara: **639 400 786**
- Argazkiak durungaldea.blogspot.com blogean egongo dira ikusgai.
- Saria: 2 pertsonentzako bazkari edo afaria **KOBIKA** jatetxean (Durango)

☎ 639 400 786

🌐 www.durungaldea.blogspot.com

✉ durungaldea@ae.k.eus

📱 Durungaldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Udalak



Babesleak



praktikatu



Garaiko nagusien elkarteok San Isidro Eguna ospatuko dute

GARAI • M.O.

Euskal Herriko hainbat herri-tan baserritarren eguna da San Isidro, eta Garain ere ospatuko dute maiatzaren 15ean, datoren eguaztenean. Herriko nagusien elkarteak antolatutako ekintzak egongo dira. Alde bate-tik, meza izango da, 13:00etan, eta bestetik, bazkaria, 14:15ean. Herriko tabernan bazkalduko dute, eta antolatzailerak eskatu dute astelehena baino lehen izena emateko, 94 681 25 80 telefono zenbakira deituta. 25 euro balioko du menuak.

Hain zuzen ere, ospakizuna egingo duten Herriko tabernan aldaketak egin dituzte azkenaldian. Udalak komun berriak egin ditu lehen solairuan, erabiltzaileentzat erosoago izateko.

Udarako Anboto kalea berrantolatuta egotea aurreikusten dute Atxondon

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Oinezkoentzat segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz, Apatako Anboto kalean lanak egingo dituzte. Horrez gain, aparkalekuak berrantolatuko dituzte. "Aparcaleku gehiagoren premia dago eta horregatik hartu dugu erabakia", esan du David Cobos Atxondoko alkateak. Lan hauek egiteko, 25.000 euro bideratuko ditu udalak, eta udarako amaituta egotea aurreikusten dute.

Izurtzako jaietako kartel lehiaketak 250 euroko saria emango du

IZURTZA • J.D.

Izurtzako jaietako kartel lehiaketarako proposamenak ekainaren 7ra arte aurkeztu daitezke, udaletxean. Irabazleak 250 euroko saria jasoko ditu. Kartelek honako testu hau izan beharko dute: *Izurtzako Jaiak*. Formatuak nahitaez bertikala izan behar du, eta 50X70 zentimetroko neurrikoa. Gainerakoan, sortzaileek gura duten teknika erabili dezakete euren lana egiteko. Oinarri guztiak udaletxean jaso daitezke.

'Mugarriz Mugarri Iurreta' ibilaldia antolatu du Zaldai mendi taldeak

10. urteurrena beteko dute aurten, eta ekintza berriekin osatu gura dute urteko egitaraua



Zaldai mendi taldeak antolatutako Iurretako mendi martxak ehunka mendizale batu ditu azken urteetan. ZALDAI MENDI TALDEA

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Mugarriz mugarri 10 bat kilometroko ibilaldia antolatu du domekarako Zaldai mendi taldeak. Horrela, Iurreta eta Durango arteko muga ezagutzeko aukera eskainiko du. Hamarkada beteko du aurten Zaldaik, eta dagoeneko egonkortuta dauden ekintzekin batera, urteurren borobila gogoratzeko egingo dituzten ekintzen artean lehenengoa da hau.

Iurreta eta Durango arteko muga ezagutzeko aukera eskainiko du ibilbideak

Plazatik irtengo dira, 09:30ean, eta ibilbidea amaitzean luntxa eskainiko dute. Azaldu dutenez, umeekin egiteko moduko ibilbidea da eta taldean joanda osatuko dute, mugarri bakoitzean geldialdia eginda.

Plazatik irtengo dira, 09:30ean, eta ibilbidea amaitzean luntxa eskainiko dute

Datozen urteetan ere errepi-katu gura dute *Mugarriz Mugarri Iurreta*, Zornotza, Muxika, Berriz eta Garaigaz partekatutako mugarriak ezagutzeko.

Gontzal Mendibilek kontzertua eskainiko du maiatzaren 31n

Hamabostaldi Kulturalaren barruan etorriko da Mallabira, eta Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin batera arituko da pilotalekuan izango den musika emanaldian

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian prest dute Hamabostaldi Kulturalako egitaraua. Askotariko ekintzen artean, Gontzal Mendibil musikari zeanuritarraren emanaldia nabarmendu daiteke. Maiatzaren 31n izango da, pilotalekuan. Mendibil eta Jasokunde abesbatzen laguntzagaz plazaratuko du bere errepertorio zabala.

'Emozioz hezten' tailerragaz abiatuko dute aurtengo egitaraua

Baina emanaldi horren aurretik hainbat ekintza egongo dira Mallabian. Learreta-Markina eskolan emango duten *Emozioz hezten* izeneko tailerragaz hasiko da

Hamabostaldi Kulturala, datorren asteko barikuan, 16:00etan. Gero, 19:00etan, *Dantza* filma eskainiko dute Kontzejuzarrean, Gazte Alai dantza taldeak antolatuta.

Hurrengo egunerako, maiatzaren 18rako, Mallabia Klasikoak taldeak antzinako autoen eta motoren erakustaldia antolatu du. Goizetik eguerdira artean izango da.



Gontzal Mendibil zuzeneko kontzertu batean.

Urkullu lehendakariak Mallabiko eskola bisitatu du, Nahiko programaren harira

MALLABIA • J.D.

Berdintasuna, Errespetua eta Indarkeriarik eza lortzeko Nahiko Hezkidetza Programak 15 urte egin ditu eta Mallabiko Learreta-Markina da aplikazioa martxan dagoen ikastetxeetako bat. Iñigo Urkullu lehendakariak programaren nondik norakoak ezagutu zituen astelehenean Mallabira egindako bisitan.

Loiolaren gutuna

Mallabiko Udalean EH Bilduko zinegotzia den Aitor Loiolak

Nahiko programaren bidez, berdintasuna, errespetua eta bizikidetzak lantzen dira ikasleekin

gutun bat kaleratu du lehendakariaren bisitaren harira. Bisita eskertu eta hezkuntza arloko beharrak gogoratu ditu. Esaterako, ikasleei "ezin" zaiela "arreta individualizatua eskaini" dio, "25-27 ikasle daudelako gelako".



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE  **ELEXPE**
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Hauteskundeak

Durangoko merkatu plazan ume eta gazteentzako gunea eraiki gura du EAJk

Iurretan 60 proposamen aurkeztu ditu EAJk, eta Garain hautagaien zerrenda

EAJ • M.Z. / A.B. / M.O.

Durangoko merkatu plazan haurgune eta gaztegunea bana sortzea proposatu du EAJk. Lehenik eta behin, instalazioa garbitu eta atondu egingo lukete, bertan aisialdirako eskaintza handitzeko. Bigarrenik, 2021etik aurrera, birmoldaketa integrala etorriko litzateke. Izan ere, merkatuko postuen kontzesioak orduan amaituko dira. Auzoei begira, mugitzeko arazoak dituzten per-

tsionentzat minibus elektriko bat jartzea da jeltzaleen ideia.

Bestalde, Iurretan 60 proposameneko programaren berri eman dute. Bidebarrieta kalea berritzu gura dute, eta etxebizitza jasangarriak gune berdeekin eraikitzea bultzatu, adibidez. Garaiko zerrenda ere aurkeztu dute jeltzaleek, eta Erramun Osa izango da alkategaia. "Partaidetza ahalbide- tzea" izango da euren lehentasunetako bat.



Goian, Iurretako EAJ programaren berri ematen, eta behean, Garaitarrak zerrenda aurkezten.



Goian, Elorriko zerrenda aurkezteko ekitaldia. Behean, Atxondokoak talde argazkian.

EH Bilduk auzoguneak sortu gura ditu Durangoko lokal publiko hutsetan

Elorriko hautagaitza aurkeztu eta gero, gaur hainbat herritan egingo dute

EH BILDU • M.Z. / M.O.

Durangoko EH Bildu auzoetan batzarrak egiten ari da. Adibidez, gaur Tabiran batuko dira, 19:00etan, Ibaizabal ikastolan. Lokal publiko hutsetan auzoguneak sortzea proposatu du, nagusientzat, gazteentzat eta umentzat.

Elorriko EH Bilduk hautagaiak aurkezteko ekitaldia egin zuen barikuan. Proposamen nagusiak Haur Eskola berrantolatzea,

San Pio kalea eraldatzea eta Aldapebeitian jubilatuen etxea zabaltzea dira. "Herri-tarrak lehen lerroan jarriko ditugu, eta Elorriko feminista eta ezkertiar bat eratzeko konpromisoa hartzen dugu", adierazi zuen Idoia Buruaga alkate eta zerrendaburuak.

Bestalde, Atxondon, Berrizen, Iurretan eta Zaldibarren gaur egingo dituzte aurkezpenak. Atxondoko ekitaldian Oskar Matutek parte hartuko du.

Emakumeen Etxea sortzea, Elkarrekin Podemosen ideia

Zornotzako eta Elorriko zerrendak aurkeztu dituzte

ELKARREKIN PODEMOS • J.D. / M.Z. Feminismoaren bilgune izateko, Emakumeen Etxea sustatu gura du Zornotzako Elkarrekin Podemosek. Alba Gutierrez alkategaia nabarmendu du zerrendako lehenengo zazpi hautagaietatik bost emakumezkoak direla.

Bestalde, Elorriko Herriaren Eskubideak ere zerrenda aurkeztu

zuen, eguaztenean. Agustin Fernandez izango da zerrendaburuak.

Miguel Urbán, Durangon

Miguel Urbán Podemosen sortzaileetako Durangon egongo da gaur, 19:00etan, Andra Marian, Herriaren Eskubidearen ekitaldian. Julian Riosek eta Neskutz Rodriguezek ere parte hartuko dute.



Goian, Elorriko hautagaiak. Behean, Zornotzako zerrenda osatzen dutenen argazkia.



Abadiñoako Independenteen hautagaitza, prest

AI • A.M.

Javier Crespo alkategaiaren berbetan, Independenteen zerrenda Abadiñoako errealitatea ondo eza-gutzen duten emakumezkoek eta gizonezkoek osatzen dute. "Herriarengatik eta herritarren

alde lan egingo dugun abadiño- rrek osatzen dugu zerrenda, eta ez dugu alderdien gidalerrorik jarraitzeko beharrik". Crespoz gainera, Argi Abad zinegotziak ere errepikatuko du hautagaitza, zerrendako bigarren postuan.



Aiala Egiluz alkategaia aurkeztu du Durangoko PPK

PP • M.O.

Aiala Egiluz Rodriguez izango da PPren zerrendaburu Durangon. Ekitaldi handien antolakuntzan lan egiten du, eta zerbitzu arloan ibili izan da. Jolasguneetan aterpeak ipintzea, kaleetan polizia gehiago egotea, airea ikertzea eta babeseko etxeak eraikitzea dira bere ideietako batzuk. Estazioko proiektuaren inguruan, etxeak "herriko paisajea eta arkitektura errespetatuz" eraikitzea proposatu du.

Eguzkitza auzoan parke industrial sortu gura du Durangoko PSE-EEK

PSE-EE • M.O.

Hauteskundeetarako zenbait proposamen helarazi ditu prentsara Jessica Ruiz alkategai duen alderdiak. Horien artean, Eguzkitzan eremu industrial sortzeko dago. Izaera berritzaile, jasangarri eta ekitatibodun enpresak egongo liriteke bertan.

Ekonomiagaz jarraituta, enpresen sustatzaile izateko garapen

agentzia bat ezartzea eta ekintzaileei bultzada ematea dira sozialisten beste ideia batzuk.

Bestalde, udalak lotzen dituen kontratuetan klausula sozialak, ingurugirokoak, parekideak eta integratziokoak txertatzea gura du PSE-EEK. Kontratu horietan, tokiko enpresen zein enpresa txiki eta ertainen partaidetza erraztu beharko litzatekeela uste du.



1998ko Zaldueko emakumezkoen senior taldea

Hareek denporak!

Emakumezkoen futbolaren aldeko urratsak Zaldibartik

Emakumezkoen futbolarak inoizko marka guztiak hautsi ditu 2018/2019 denboraldi honetan. San Mamesen 48.121 zale bildu ziren urtarrilean, adibidez, emakumezkoen lehen taldeak Kopako final-laurdenetan jokatuak kanporaketan. Oraindik berdintasunetik urruti egon arren, hainbat emakumek urteak daramatzate norabide horretan lanean. Baita Durangaldean ere, noski. 1998tik 2002ra emakumezkoen senior taldea eduki

zuen Zalduek. Marimar Casaseca Martin taldeko kapitainaren gidaritzapean, lau denboraldi egin zituen taldeak, 2002an desagertu zen arte. 2017an, ostera, haur-kategorian taldea sortuta, Zaldibarren urrats sendoa eman zuten emakumezkoen futbola berreskuratzeko. Gerora, Eloorriogaz batu dituzte indarrak.

Argazki hau Solobarria futbol zelaiaren sarreran dago, Ilargi argazki taldekoen lanari esker. A.M.

Durangaldea asteen

Geu Be elkarteak 4.200 euro batu ditu Abadiñoeko Eroskin egindako errifagaz

Durangaldea | Azken egunetan errifa berezia egin dute Abadiñoeko Eroskin, Geu Beren aldekoa. Aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten duen elkarteak 4.200 euro lortu ditu errifari esker. Herritar askoren deia jaso dute zenbaki saritua zein izan den galdetzeko. 2545 izan dela jakinarazi dute. Bestalde, Traña-Matienako jaietan txahal pintxoak banatu zituen Geu Be elkarteak, eta han ere arrakasta handia eduki zuen, 2.600 euro lortu zituen eta.

Bigarren eskuko azoka egingo dute abenduaren 24an, herriko plazan

Elorrio | Elorrioko merkataritza txikiaren egoera hobetu eta herritarrak dendetara erakartzeko asmoz, udalak eta Elorrioko Merkataritza Elkarteak Merkataritza aplikazioa jarri dute martxan. Udalak ohar bidez jakitera eman duenez, aplikazio berri honek dendarien eta bezeroen arteko komunikazioa erraztuko du. Eta herritarrak herriko komertzioetara joatea izango du helburu.

Udalak batzarra egingo du gazteekin, skate parkearen inguruan berba egiteko

Elorrio | Buzkatz parkean egingo duten skate parkerako ekarpenak jasotzeko asmoz, Elorrioko Udalak bilera bat egingo du herriko gazteekin, gaur. Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, proiektuaren erredakzioa lizitatuta dagoen arren herriko gazteekin proiektuaren ezaugarriak kontrastatu gura dituzte. Gaur egingo dute batzarra eurekin, 18:30ean, Ametsolan.

Iritzia

Durangoko 019 udaltzaina eta hitzaren garrantzia

Aste Santuaren aurretik, lankide baten deia jaso nuen. Isuna jartzen ari zitzazkidalda esan zidan. Kontua da, eta egia da, marra horia dagoen gunean aparkatu ohi dudala batzuetan. Egunerok ikusten nuen kotxeren bat aparkatuta, eta, behin, ingurukoei galdetzea erabaki nuen. Argi utzi zidaten, nahiz eta gune horia izan, aparka zitekeela.

Bat-batean bertaratu nintzen eta isuna ipini berri zuen udaltzainari, mesedez, kentzeko eskatu nion. Han gehiago ez nuela aparkatuko zin egin nion. Orduan, 019 udaltzainak eta bere lankideak ospa egin zuten, istripu baten berri izan baitzuten, eta joaterakoan, "te loquito luego" esan zidan. Kotxera sartu bitartean, eskerrak eman nizkion, baina badakit ez zuela entzun, sirena jarrita ziztu bizian alde egin baitzuten. Lankide baten aholkuei jarraituz, egun batzuk geroago udaltzainagora deitu nuen, eta esan zidaten tramitea aurrera zihoala. Hau da, isuna jarrita nuela. Udaltzainagora joan eta ezinezkoa egin zitzaidan 019 udaltzainarekin bat egitea. Orduan, ondorengo esan nion harrerako udaltzainari: "Hitz ematen dizut hau nonbaiten idatziko dudala". Berehala ordaindu nituen 45 euroak. Egia esanda, zer dira 45 euro emandako hitzarekin alderatuta? Hutsaren hurrengo. Baina erne, irakurle, zuri gerta dakizuke eta! Amamak esango zukeen bezala: non geratu da euskaldunaren hitza? Nik neuk, behintzat, bete dut esandakoa.

Saioa Lopez Eizagirre (Durango).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



- Konfidantzan, ikastola -

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

BATXILERGOA

Matrikulazio epea: Maiatzaren 2tik 14ra
Ate irekiak: Maiatzak 13an, 18:00etan

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA

Aurrematrikulazioa: Ekainaren 3tik 14ra.
Matrikulazio epea: Uztailaren 11tik 17ra
Ate irekiak: Maiatzaren 14an, 18:00etan





Lulavaik hasiko du Eleizetan 2019

MUSIKA

ZORNOTZA : Maiatzak 11

Harpa laukote galiziarra

Zapatuan, maiatzak 11, emango diote hasiera aurtengo Eleizetan musika jaialdiari. Lulavai laukote galziarrak eskainiko du lehenengo kontzertua. Etxanoko Andra Mari elizan izango

da harpa kontzertua. Beste lau kontzertuk osatzen dute egitaraua. Maiatzaren 12an, Alos Quartet taldeak eskainiko du kontzertua, Bernagoitiko San Miguel elizan, 12:15ean. Hu-



Latinoamerikako egoera nahasia berbagai, Kainaberaren eskutik

HITZALDI ZIKLOA | Latinoamerikako hainbat herrialdetan bizi duten egoera nahasia berbagai hartuta abiatuko du Kainaberak maiatzeko hitzaldi zikloa, dato-

rren astean. Victor Pozas EHUko irakaslearen eskutik, Brasil, Venezuela eta Nikaraguara hurbiltzeko aukera egongo da maiatzaren 15ean, Iturri kultur etxean.

Zaporeak eta Hemendik eta Harantza elkarteetako kideek errefuxiatuek Grezian bizi duten errealitatea azalduko dute, maiatzaren 22an. Greziako irletan jarraitzen duten milaka errefuxiatuekin lan egiten dute elkarre hauek. Zikloa borobiltzeko, Kainaberak esku artean dituen proiektuen berri emango du, hilaren 29an. Berbaldi hauek ere Iturri izango dira, 19:00etan.

Maiatzaren 10ean

ABADIÑO santrokazak 'Aralar, mundua leku den lurra' dokumentala, 19:00etan, Txanporta kultur etxean (gonbiteak udal mediatekan, gehienez bi pertsonako). Alluitz mendi taldeak antolatuta.

BERRIZ musika 360° HZuzenean: Empty Files, 22:00etan, kultur etxean.

DURANGO irakurraldia Hitzez eta Ahotsez: Askatasuna gai duen irakurraldi girotua, 17:00etatik gauerdia arte, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO antzerkia Ni Neu!: 'Goya desenfrenado' (Jaime Ocaña) antzelana + 'Ser' (Cristian Martin) dantza ikuskizuna + 'Cuckoo. Cuando lo efimero se detiene' (Francis J. Quiros) klowne ikuskizuna 20:30ean, Arriolan.

ZORNOTZA musika Imanol Jazz: Karlos Gimenez, Iñaki Salvador, Ainara Ortega eta Petti, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 11n

BERRIZ musika Jose Luis Nieto, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO jolas literarioa '24 ordu paperean', Sorginola gaztetxeak antolatuta. Gai eta hitz bat jarriko dute sare sozialetan, 12:00etan. Hortik abiatuta, testu literarioa osatu behar dute parte-hartzaileek, maiatzaren 12ko 12:00ak baino lehen.

DURANGO musika Pako Eskorbuto + Etsaiakeroak + State Alerta, 22:30ean, Plateruena kafe antzokian.



rrengo asteburuan, hiru emanaldi egongo dira: Jose Luis Nietok (maiatzak 17), Hazkunde hirukoteak (maiatzak 18), eta Begoña Olavidek eta Javier Bergiak (maiatzak 19) joko dute.

'Zein da zein' obra taularatuko dute Ibaizabaleko ikasleek San Agustinen

ANTZERKIA | Denaren eta uste dugunaren inguruan landu duten antzezlanaren taularatuko dute Durangoko Ibaizabal ikastolako antzerki taldeko lagunek, za-

patu honetan, maiatzaren 11n. Herrian, San Agustin kulturguneko oholtzan aurkeztuko dute 'Zein da zein' obra. 19:00etan ipini dute hitzordua.



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Maiatzaren 12an

ABADIÑO santrokazak
San Trokaz elizako kanpaien errepikaldi alaia, 14:00etan.
San Trokaz Saria
txirringularen lasterketa (gaztetxoak), 14:00etan (kadete mailako 1. urtea) eta 16:00etan (kadete mailako 2. urtea).
Gerbasen kalejira txistulariekin eta dantzarien ekitaldia (azken entsegua) 19:00etan, San Trokaz plazan.

DURANGO

Berberoren 30. urteurrena 'Erradikalak gara' bakarrik eta bertsoa uztartzen dituen ikuskizuna, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian.

Maiatzaren 13an

DURANGO

Berberoren 30. urteurrena Txoborro magoa, 17:00etan, Plateruena kafe antzokian.

Maiatzaren 14an

ABADIÑO santrokazak
II. Dikothomia Kabareta, familia ikuskizuna, 18:00etan, probalekuan.
Dj Danny Meip eta Dj Gorka Perez, 19:00etan, Txanporta plazan.

ELORRIO aurkezpena 'Transexualitateak' liburuaren aurkezpena (Bilgune Feminista eta Emagin), 19:00etan, Iturri kultur etxean. LGTBI + fobiaren Aurkako Eguna.

Maiatzaren 15ean

ABADIÑO santrokazak
Meza nagusia, 12:00etan.
Ezpatadantzari eta irlandarren dantzaldia, San Trokaz plazan.
Beldur barik gunea, 14:00etan, Txanporta plazan.
Luhartz, 18:00etan.

DURANGO hitzaldia

'Herritartasuna: tramitea', 18:30ean, Elkartegian.

Maiatzaren 16an

BERRIZ musika
360° HZuzenean: Madeleine, 22:00etan Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika
Dj Stragos, 22:00etan. Txoria Nuen Maite tabernan.

ELORRIO hitzaldia 'De la violencia simbólica al feminicidio en Argentina' (Verónica Bajo- Acciones Feministas de Bahía Blanca), 18:30ean, Iturrin.
'Una crónica musical feminista' (DesBandadas), diskoaren aurkezpena eta ikuskizuna. 20:00etan, plazan. LGTBI + fobiaren Aurkako Eguna.

Maiatzeko agenda



11	"ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA" Gerlari kirol zentroa 10:00-14:00 Autodefentsa feminista, 14 urtetik gorakoentzat info+: 616 490 506
12	"ZALDAI MENDI ELKARTEA" Mugarriz mugarri: lurretako mugak ezagutzuz 10km 9:30 Irteera lurretako Plazatik info+: zaldai@hotmail.com / ww.zaldai.eus / 626 740 969
13	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 15:45 "Paperezko hegoak" D.B.H.ko 1.maila
15	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA-GIZARTE ONGIZATEA" 10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba "Paperezko hegoak" 17:00 8-9 urte (L.H. 3. maila) 18:00 9-10 urte (L.H. 4. maila) 19:00 10-11 urte (L.H. 5. maila) eta 11-12 urte (L.H. 6. maila) Durangaldeko Amankomunazgo Adinekoen zerbitzua 17:00 Hitzaldia: "Nola eskatu gizarte bonua" Nagusien Etxea
16	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" "Paperezko hegoak" 18:00 Ikasturte amaierako jaialdi literarioa



Pokemon: Detective Pikachu Durangon

ZALDIBAR mendi tour

Bilbao Mendi Film Festival-eko onena: 'Wallmapu', 'RJ Ripper', 'Liv Along the Way' eta 'Up to speed' film laburrak, 18:30ean, liburutegi zaharrean.

Maiatzaren 31ra arte

DURANGO erakusketa Santos Okinaren nargolanak, Napost tabernan.

DURANGO erakusketa 'Geometriak eta Fikzioak' (Daniel Txopitea), Arte eta Historia Museoa.

ELORRIO erakusketa 'Yume Amets' (Idoia Zubiaren lanak), Iturri kultur etxean.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Dumbo**
barikua **10:** 18:15
domeka **12:** 17:00

:: Durango - ZUGAZA

• **Pokemon: Detective Pikachu**
barikua **10:** 19:30/22:00
zapateria **11:** 17:30/18:30 (euskaraz) /20:30/22:30
domeka **12:** 17:00/18:30 (euskaraz) 20:30
astelehena **13:** 18:30/21:00
martitzena **14:** 20:00
eguaztena **15:** 20:00

• **La Intervención**
barikua **10:** 19:30/22:00
zapateria **11:** 18:30/20:30/22:30
domeka **12:** 18:30/20:30
astelehena **13:** 18:30/21:00
martitzena **14:** 20:00
eguaztena **15:** 20:00

• **Los hermanos sisters**
barikua **10:** 19:30/22:00
zapateria **11:** 19:45/22:30
domeka **12:** 19:30
astelehena **13:** 18:30/21:00
martitzena **14:** 20:00
eguaztena **15:** 20:00
• **Uglydolls:**
extraordinariamente feos
zapateria **11:** 16:30
domeka **12:** 16:30

:: Elorrio - ARRIOLA

• **Vitoria, 3 de marzo**
zapateria **11:** 22:00
domeka **12:** 20:00
astelehena **13:** 20:00

:: Zornotza - ARETOA

• **Lo dejo cuando quiera**
zapateria **11:** 18:00
domeka **12:** 16:30
• **Vengadores: Endgame**
zapateria **11:** 22:00
domeka **12:** 20:00
astelehena **13:** 20:15

Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek 'Erradikalak gara' ikuskizuna eskainiko dute domekan, Plateruenean

Bertsolaritza eta bakarrizketa uztartzen dituen emanaldia maiatzaren 12an izango da, 20:00etan; sarrera doakoa da



Ane Labakak eta Beatriz Egizabal

DURANGO • KAROLINA SUAREZ

Berbarok 30. urteurrena ospatzeko antolatutako udaberriko ekin-tzetariko bat da *Erradikalak gara*. Labaka bertsolariak eta Egizabal ipuin kontalariak umorea erabili dute tresna legez lana sortzerako orduan, eta feminismoa zeharlerro. Bertso edukien sormenerako Lanku beka irabazi zuen proiektuak, erraietatik ibilita erroetara heltzeko asmoagaz.

Ane Labakak bertsolariak azaldu bezala, batzuek feminismoaren inguruko obra dela diote, baina ez da hori bakarrik: "Eduki aldetik, gehiago gustatzen zaigu

esatea genero ikuspegia duela obrak zeharlerro moduan; umorea azpimarratzea ere gustatzen zaigu".

Entzulearengan eragina izateko erabili dute umorea. "Umorea sekulako arma da esateko daukaguna adierazteko", azaldu dute. Diskurtso aldetik, ideiak beste era batera plazaratzea da Egizabalen eta Labakaren asmoa: "Beste modu batean esateko, kontzientziak eta gorputzak astindu eta eragiteko balio digu umoreak".

Labakaren esanetan, artista biek askotan entzun behar izan dute erradikalak direla. "Guk eta

feminista askok", diotenez. Izatez, hortik dator ikuskizunaren izen-

"Kontzientziak eta gorputzak astindu eta eragiteko balio digu umoreak"

"Feminismoa ondo dago, baina neurri batean; hortik aurrera, erradikalak ei gara"

burua. "Neurrirasun baten barruan gura gaituzte gauzak egiterako orduan; borroka feminista oso ondo dago, baina neurri batean. Hortik aurrera, erradikalak ei gara". Ideia hori hartu eta aldatu egin gura izan dute artistek. "Erradikal berba 'erro'tik dator etimologikoki". Eta hori da gura dutena: "Sustraitik aldatu gura ditugu gauzak, berbok era negatiboan erabiltzen dutenei haxe esateko: 'Bai. Erradikalak gara eta izaten jarraitu gura dugu'".

Labaka bertsolariak eta Egizabal bakarrizketalariak elkarrekin miresentetik sortutako obra da hau.

'Geometria eta Fikzioak' erakusketa Daniel Txopitea omentzeko asmoz

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Eguenean inauguratu zen Daniel Txopitearen hainbat lan biltzen dituen *Geometriak eta Fikzioak* erakusketa, Durango-ko Arte eta Historia museoan. 40 bat obrak osatzen dute, eta Donostiako Koldo Mitxelena egindakoaren osagarria da. Hain zuzen ere, Ainize Txopitea artista —Danielen alaba— da bietako komisarioa. Museokoa berariaz prestatutako erakusketa da. "Besteak beste, Durangon egin gura genuen, bere garaian Lepoldo Zugazak animatu baitzuen nire ama [Begoña Cendoya] nire aitaren poemak publikatzera. Keinu bat da", azaldu

Ekainean tailerrak eta bisita gidatuak egingo dituzte Ainize Txopiteak eta Arrizabalagak

du Ainize Txopiteak. Izan ere, margolaria ez ezik artista poliedrikoa zen Txopitea. "Hildako margolari baten obra bildu izan dute orain arteko erakusketek. Honako hau gaikakoa da", gaineratu du Txopiteak. Hain zuzen ere, irudikeria feministan sakondu gura izan du *Geometriak eta Fikzioak* erakusketan.

Erakusketaz gainera, ekainean zehar tailerrak eta bisita gidatuak eskainiko dituzte Ainize Txopiteak eta Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak. Uztailaren 7ra arte egongo da ikusgai *Geometriak eta Fikzioak*.



DesBandadas.

DesBandadas argentinarrek disko berria aurkeztuko dute Durangaldean zehar

Maiatzaren 15ean hasiko dute Elorriotik, Berriztik eta Durangotik igaroko den bira

MUSIKA • A.M.

DesBandadas talde argentinarrek maiatzaren 15ean ekingo dio *Una crónica musical feminista* diskoaren birari. Egun bat geroago, maiatzaren 16an, Elorrioko plazan zuzer-

'Una crónica musical feminista' diskoa aurkeztera dator taldea Euskal Herrira

neko emanaldia eskainiko dute, 20:00etan. 17an Berrizko udal-tertxeko lorategian eskainiko dute kontzertua(19:30); eskualdeko beste kontzertua Durangon izango da, maiatzaren 23an, 20:30ean; San Agustin kulturgunean izango da. Batukandraren eskutik datoz.

Talde aktibista

Silvia Palumbo abeslari eta taldearen zuzendariak eta emakumezko aktibistek osatzen dute DesBandadas. Indarkeria matxistaren

Indarkeria matxistaren ondorioez abestu ohi dute euren kantuetan, kontzientzia eragiteko

ondorioez abestu ohi dute euren kantuetan: feminizidioez, biolentzia estetikoaz eta sexu abusuez, besteak beste. Euren abestiekin, gizartean eragitea eta hausnarketa sortzea dute helburu.

Atara Zaratak 'Erreginak' obra estreinatuko du Sorginola gaztetxean zapatuan egingo den mikroantzerki maratoian

Lau antzezlan eskainiko dituzte Sorginolak eta Atara Zarata kultur elkarteak elkarlanean antolaturiko jaialdi berritzailean; maiatzaren 11n izango da



Buru t'erdia abadiñarrek 'Jornadas Marianas' lana antzetzuko dute.

ANTZERKIA • A.M. / A.B.

Bizkaiko lau antzerki konpainiak (hauetako hiru Durangaldekoak) indarrak bildu, eta euren azken obrak eskainiko dituzte Durangoko Sorginola gaztetxean, maiatzaren 11n. Horietako bat, Atara Zarataren *Erreginak*, estreinakoz ikusi ahalko da, gainera. Hain zuzen ere, obra hori da ekimenaren abiapuntua: "Gurea bakarrik estreinatu beharrean, inguruko taldeekin zerbait egitea pentsatu genuen", azaldu du Markel Ganboa kultur elkartearen kudeatzaileak. Horrela, Buru t'erdia abadiñarrek *Jornadas Marianas*, Saregabe santurtziarrek *Oaxaca en dos*, eta Paganini konpainiak *Lollipop* obrak antzetzuko dituzte. "Drama bi eta klown ikuskizun bi izango dira". Zenbait emanaldi egongo dira, 20:00etan hasita, eta sarrerak 19:00etan jarriko dituzte salgai.

Formatu berritzailea

Ganboaren berbetan, mikroantzerkiak tendentzia izaten ari dira antzerkigintzan: "Madriren, adibidez, horrela egiten ari dira antzerki saioak egun, eta Atara Zaratan

formatua Durangora ekartzeko proposatu nuenean, ideiak harrera ona izan zuen". Hain zuzen ere, kultur elkartearentzat erronka bat izan da formatu honetara moldatzeko

Sorginola beste modu batera ikusteko aukera eskainiko die maratoiak ikusleei

lan egitea. "Gainera, Sorginola beste modu batera ezagutzeko aukera eskainiko du maratoiak, zenbait guretan izango baitira emanaldiak", gaineratu du.

Literatura Sorginolan

Beste urte batez, 24 ordu paperean sorkuntza-jolasean aritzeko aukera ere egongo da asteburu honetan Sorginolan. Antolatzaileek emandako gai eta berba bat abiapuntu moduan hartuta, testu bat osatu beharko dute parte-hartzaileek. Maiatzaren 11n jakinaraziko dituzte gaia eta berba, 12:00etan, sare sozialen bidez.

MAÑARIA
2019ko maiatzaren 19an
Goizeko 10:00etatik aurrera

XXIV. Artisau, Elikadura eta Landare Azoka

IV. Euskadiko Azpi Gorri Txapelketa

bbk gizarte ekintza

MAÑARIKO MAIATZA KULTURALA

11 HERRIKO DANTZARIAK
18:30etan kalejira herria zehar eta ostean dantzak.

12 "TIO TERONEN SEMEAK"
Dantza ikuskizuna, 18:00etan plaza eta frontoian (eguraldiaren arabera).

14 ERLEEI BURUZKO HITZALDIA
19:00etan Erosko Buztintza kultur etxean.

16 PELOTARI PROFESIONALEKIN TARTEA:
LEIRE ETXANIZ ETA BAIKO ENPRESAKO PELOTARI BATEKIN.
18:00etan hitzaldia eta ondoren, masterclass-a.

18 ESPELOLOGIA TXANGOA
10:00-13:00 (Maiatzak 10 erdiko, izena eman behar da)
KORUKO KONTZERTUA
19:00etan Andra Mari Elizan.

19 XXIII. AZOKA
10:00etatik aurrera herriko plazan.
11:00etan frontoian umentzako tailerrak (Alluitz Natura)
12:00etan Herriko dantzariak plazan.

IV. EUSKADIKO
azpi gorri
TXAPELKETA

MAÑARIA
10:00 h.
Animaliak ikusgai

Maiatzak 2019
19

Legutzaileak:
Bizkaia

Askatasuna sortzeko eta sorkuntza askatzeko

Hitzez eta Ahotsez herri ekimenaren seigarren edizioiko irakurraldia egingo dute gaur arratsaldean, Plateruenean

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Euskal literatura jendarteratzea du helburu Hitzez eta Ahotsez ekimenak, eta aurtengo edizioak, seigarrenak, 'Askatasuna' du ardatz. "Proposamenak harrera ona izan zuen planteatzen"

17:00etan hasiko da irakurraldia eta gauerdia arte iraungo du

tu zenean. Hori bai, apur bat gehiago kostatu zaigu testuak topatzea", azaldu du Marisa Barrena antolatzaileak. "Askatasuna bere zentzurik zabalenean planteatu dugu, askatasuna zein askatasun eza", gaineratu du Endika Blanco kideak. "Esango nuke sortzaileei ere apur bat gehiago kostatu zaiela", arrazoiatu du Barrenak. Hala ere, ahaleginak merezi duelakoan daude antolatzaileak: "Ale ederrak batu ditugu", borobildu du Blancok. Horrela, euskal literaturako egile garrantzitsu askoren testuak entzungo dira Plateruenean. "Denetarik egongo da: bertako idazleak, bertakotzak, itzulitakoak, garaikideak, antzinakoak..." gehitu du. "Gerra garaiko idazleak ere garrantzia edukiko dute, Lauaxetak adibidez. Horrez gainera, emakumezkoak ere kontuan hartu ditugu". Angela Davis, Mari Luz Esteban, Karmele Jaio eta Itxaro Bordaren testuak irakurriko dituzte, besteak beste. Duran-

galdeko zenbait idazleren testuak ere irakurriko dituzte, eta eurek ere parte hartuko dute irakurraldian. Mila Salterainek eta Peru Magdalenak, adibidez.

Gaiaren inguruan, ia 300 parte-hartzailek eurek aukeratu edo sortutako testuak irakurriko dituzte. Antzerkilariak, musikariak eta dantzariak ere arituko dira euskarazko literaturaren piezak taula gainean erakusten. "Bakoi-tzak bere ekarpena egin gura dio ekitaldiari, oinarrian literatura edukita, nola ez". 17:00etan hasiko da irakurraldi girotua, eta gauerdian amaituko da, Luhartzegaz.

Bost edizioen ostean, urteroko hitzordu bilakatu da Hitzez eta Ahotsez, eta antolatzaileek euska-

Durangaldeko idazleek ere parte hartuko dute. Mila Salterainek eta Peru Magdalenak, adibidez

ra ikasten dabiltzanen ahalegina ere nabarmendu dute: "Eurentzat erronka bat da jendaurrean euskaraz irakurtzea".

Hilabeteetako lana

Hitzez eta Ahotsez ekimenaren seigarren edizio honi Uxue Alberdik eman zion hasiera, *Askatasuna Bertsoraino* berbal-diagaz; otsailean eta martxoan urteroko solasaldi dialogikoak egin zituzten, eta apirilean, bestalde, Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *Berba Kateauak* ipuin saioa eskaini zuen.



Peru Magdalena eta Unai Abaunza.



Erika Lagoma.



Dantzariak.

Gai librea

Libe
Mimenzia Castillo
Kazetaria



'13 reasons why'

- 1- Bideoklub bat ikusi genuen duela aste batzuk Arratian, eta hipster petoen bulkadari eutsi ezinda geratu ginen: atera polaroid makina eta egin argazkia!
- 2- Mugikorrera ziztu bizian: zenbat DVD irakurgailu daude gure etxeetan? 0 emaitza. Bilatzaileak ez daki dena.
- 3- Halere, ikus-entzunezkoak kontsumitzen jarraitzen dugu: 4,5 milioi bideo play egiten ei dira minuturo Youtuben.
- 4- Online eta nahieran dira aisialdiko hitz gogokoena. Streaming bada elizkizun garaikidea, noiz okupatuko ditugu elizak *Game of Thrones* ikusteko?
- 5- Gorde HBO kontuko pasahitza, edo egin crossover bat eta jaitsi nahi duzun hori ezer ordaindu gabe (gurean beti jatorrizko bertsioa eta euskarazko azpidatziak. Bai ezta?).
- 6- Netflix Hego Euskal Herriko herriarren %19rengana iristen da, 34 urtetik beherakoon %39 abduzitura hiru urtean. Iparraldekoak garelako esanda ez gara plataformaren gose ase ezinaz libratuko.
- 7- Ikerketa batek berriki aurkitutako ebidentzien arabera, nerabeen suizidioek gora egin dute Netflixeko *13 reasons why* telesailaren harira.
- 8- Korrelazioen pentzura hazi da bai polemika, bai audientzia.
- 9- Eskaintza globala, edukien homogeneizazioa edo espioitza masiboa. Kezkatuta behar genuke plataforma handien letra txikiek.
- 10- Non da gure bazka? Urkatzeak, bortxaketak, bahiketak, thriller politikoak, ziberjazarpena... Esan, nola deitzen da gure Matrix?
- 11- Euskarazko ekoizpen urriarekin ezer egiten ez dugun bitartean ez al gara gure kulturaren suizidioa programatzen ari?
- 12- Bideoklub bat gara streaming aroan.
- 13- Egin kontu, bost mila zazpiehun kultura ezberdin desagertu dira historian.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

PRESENTACIÓN DEL LIBRO
VENEZUELA VENCERÁ
La dificultad de la Revolución Nacional en una crisis petrolera
LIBURUAREN AURKEZPENA

Maiatzaren 15ean,
eguaztena, 19:00etan

Jose Antonio Egido soziologoak
"VENEZUELA VENCERÁ"
liburua aurkeztuko du

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{urte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Gisasola Pentsuak
- EKO GARDEN -

Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 - Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

 **mam** ginekologia zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Fisioterapia**
PSE: 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiaz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Optometria**
PSE: 162/13

 **keinu** optometria zentroa


Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099


www.keinuoptometriazentroa.com

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

 **UGATZ**

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Eneko Barroeta: "Azken tartea oso gogorra egin zitzaigun. Aldapa handia zegoen eta dena elurretan egin genuen"

Durangaldeko lau lagunek 6.189 metro dituen Island Peak mendia igotzea lortu dute Himalaia mendilerroan



Ezkerretik hasita: Eneko Barroeta, Javi Fondado, Luki Fondado eta Inhar Irastorza, Island Peak mendian.

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Eneko Barroeta iurretarrak, Javi Fondado eta Luki Fondado anaia durangarrek eta Inhar Irastorza izurtzarrak 6.189 metro dituen Island Peak mendia igo dute, Himalaian. Unai Madinabeitiak ere parte hartu zuen espedizioan. Ia 20 egun iraun duen abenturaren nondik norakoak azaldu ditu Barroetak.

Mendia inguru ezaguna da eurantz, eta Pirinioetan eta Alpeetan sarri ibilitakoak dira. Baina seimilako bat Himalaian... beste urrats bat zen. Katmanduko aireportuan hasi zitzaizkien abenturak, lehen egunean ezin izan baitziren aireratu, lainoagatik. *Trekking*-ari ekiteko, Luklako aireportura hegaldatu beharra zeukaten, baina

aireportu arriskutsua da Luklako. Pista laburra du lurreratze, eta, 2.800 metrora dagoenez, sarritan lainope egoten da. "Katmanduko tabernari batek bere garajea utzi zigun eta hantxe egin genuen lo", gogoratu du Barroetak.

Biharamunean heldu ziren Luklara. Hurrengo hamar bat egunean *trekking*-ean ibili ziren, helburu bigaz: ingurua ezagutzea eta altuerara aklimatzea. "Garaiera batera igo eta zati bat jaitxi egiten genuen, apurka aklimatatzeko", esplikatu du. Hamaikagarren egunean jarri zuten begia Island Peak tontorrean. Behe kanpalekura joan ziren lehengo, 5.100 metro ingurura. Biharamun goizaldean, 01:00 inguruan, zazpi ordu eta erdi iraungo zuten

tontorrerako ibilaldiari ekin zioten. Elurrik bako lehengo tartea igarota, 5.800 metrora dagoen glaziarrera heldu ziren. Une horretara justu samar heldu zen Madinabeitia eta behe kanpalekura itzultzea erabaki zuten.

"Garaiera horretarako oso garrantzitsua da ondo aklimatzea. Gu justuan aklimatatu ginen"

Azken ahalegina

Besteek gorantz jarraitu zuten. Glaziarra zeharkatu —une batzuetan eskailera batzuen laguntzagaz— eta azken tartean sartu ziren. "Oso gogorra egin zitzaigun. Aldapa handia zegoen eta dena elurretan egin genuen. Garaiera horretarako oso garrantzitsua da ondo aklimatzea. Gu justuan aklimatatu ginen, egun faltagatik", gogoratu du Barroetak. Ahalegin guztiak mezezi izan zuen gora heldu zirenean. "Une ederra izan zen", dio. Beste hiru-lau ordu eman zituzten behe kanpalekura jaisteko.

Bihar hasiko dute Master Kaiola, pilotari gazterik onenekin

Zornotzako lau t'erdiko txapelketan 48 pilotari lehiatuko dira uztailaren 22an jokatu den finalera bitartean

PILOTA • J.D.

Gaszte mailako eta 22 urtez azpiko 24na pilotarigaz, bihar hasiko du aurtengo bidea Master Kaiola lau t'erdiko txapelketak. Partidu denak Zornotzako Amorebieta IV.a pilotalekuan jokatu dira, domeka goizetan. Bizkaiko 16 pilotarik

parte hartuko dute. Nafarroatik eta Gipuzkoatik 12na etorriko dira; Arabatik eta Errioxatik, launa.

Durangaldeko hainbat pilotarik parte hartuko dute, Zornotzako Lagun Onak eta Erdu eta Eloorrioko Hori-Hori eskolen artean banatuta.



Partidu denak Amorebieta IV.a pilotalekuan jokatu dira.

Tabirako Baquek Lauko Finala jokatu du asteburuan, Landako kiroldegian

Zapatu iluntzean bigarren finalerdia jokatu dute, La Salle taldearen aurka



Liga denboraldi oso onari esker lortu dute Lauko Finala Durangora ekartzea.

SASKIBALOA • J.D.

Denboraldi eder bati esker, Tabirako-Baque emakumeen talde nagusiak helburu bi lortu ditu: Lauko Finalera sailkatzea eta final hori Durangon jokatzeko. Asteburu honetan izango da.

Zapatuan finalerdia jokatu dira: Loidola Basket-Easo, 18:00etan, eta Tabirako Baqué-La Salle, 20:30ean. Irabazle bien arteko finala domekan izango da, 17:00etan.

2016ko finala gogoan

Klubetik zaleen laguntza eskatu dute. Orain hiru urte Durangon jokatu zuten Lauko Finala sortu zen giroa errepikatzea gura dute. Orduan, kiroldegia lepo bete zuten, eta zaleen animoek lagunduta Tabirakok irabazi zuen finala, luza pen bi izan zituen partiduan.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Aurten Ingeleseztan izango da
Udalekuak 2019
6 urtetik aurrera, malla guztiak, inimiziotik hasi eta galopeen prestakuntzararte

I MODULUA	II MODULUA	III MODULUA
Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara	Ordutegia: 9:00etatik 16:00etara	Ordutegia: 9:00etatik 16:00etara
Egunak: Aste osoa	Egunak: Aste osoa	Eguenetik barikura bertan gaua pasatuz
Prezioa: 210€	Prezioa: 260€	Egunak: Aste osoa
		Prezioa: 320€

Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA
Zelai Alai Hipika Eskola Iurreta Gaztañatza auzoa z/g 48215 Iurreta - Tel: 691 746 611
www.hipicazelaialai.com



Gremioen gida

anboto



Elektrizitatea

MARKIEGI

ARGIZTATZEN
JARRAITZEN DUGU!

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Durangoko Kulturalak agur esan dio Bigarren B Mailari, eta Iurretako, Abadiño zein Elorrio B igo guran dabilta

Ligak amaitzen ari dira eta batzuen patua erabakita dagoen bitartean, beste batzuk jardunaldi erabakigarrien atarian daude

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak ezin izan dio Bigarren B Mailari eutsi. Urtebete iraun du durangarren ametsak. Mailari neurria hartzea kosta egin zitzaion eta 10. jardunaldian lortu zuen lehen garaipena. Denboraldi osoan korrontearen kontra aritu behar izan du arraunean. 2019ko otsailean eta martxoan izandako piztualdia —lau garaipen bost jardunalditan— ez da nahikoa izan.

Kulturala jaitsi den maila bereira, Hirugarren Mailara, igo gura du Iurretakok. Joan zen asteburuan ez zuen aprobetxatu Urduliz lideraren porrota, eta berdindu egin zuen etxean. Hiru jardunaldiren faltan puntu biko alde dago talde bien artean. Aurrenekoa zuzenean igoko da eta bigarrenak igoera fasea jokatu du.

Abadiño eta Berriz

Igoera gertu duen beste talde bat Abadiño da, Bizkaiko Lehenengo Mailan. Hiru jardunaldiren faltan igoera postuan dago, baina orpo du Basconia B, puntu bakar batera. Maila berean Berrizek jokatzen du eta jaitsi egingo da. Dagoeneko berriztarrek ez dute aukerarik matematikoki mailari eusteko.

du salbazioa hiru partiduren faltan. Azkenik, Hirugarren Mailan, Elorrio Bk aukera handia du igotzeko. Partidu bakarra falta zaio liga amaitzeko, zapatu honetan Basaurin jokatu duena, eta nahikoa du berdinketa bat.

Zaldia B eta Elorrio B

Bigarren Mailan estu dabil Zaldia B. Azkenengo tokian, lau puntura



Joan zen asteburuan Durangoko Kulturalak 0-3 galdu zuen Leioaren kontra, eta Hirugarren Mailara jaitsi zen.

Adituaren txokoa

Alfonso Arroio
Monasterio
ETBko kirol kazetaria



Pertsona

Hemezortzi urterekin ofizio honetan lehenengo urratsak egin nituenetik elkarrizketa ugari egin ditut, gehientsuenak kirolariek eta kirolari lotutakoak. Batzuek (gehienek ez esatearren) arerio moduan dakusate kazetaria (oraindik ezin dut ulertu) eta horrek zaildu egiten du enpatia izan eta pertsona ezagutzea. Gutxi batzuek, ordea, ez dute horrelako jarrerarik izaten. Ondorioz, kirolaria ez ezik pertsona ere ezagutzera irits daiteke kazetaria. Multzo honetako batzuekin afektibitatea sor daiteke, baita miresmena ere.

Asteon, abuztuaren bizikleta eskegiko duen ziklista batek bizitzako beste lezio bat eman dit (beste behin). Goi mailako kirolaria, baina guztiaren gainetik pertsona. Nik neuk gehien kontuan hartu eta estimatzen dudana. Bizitzak eman dizkion kolpe latzei aurre egiten jakin duenari errespetua eta miresmena zor zaizkio. Hezkuntzan dagoela gako dio eta guztiaren gainetik errespetua zor zaiola jende guztiari; ahulenaren alde egitea dela bere leit-motiva. Hiru semei hori transmititzen saiatzen da bere emazte Alaitzekin batera. Bikote benetan eredu garria. Biek bakarrik dakite zenbat une gogor pasatu dituzten elkarrekin. Etxe-zuriko balioak transmititzen asmatuko dutela ziur nago. Nire lanbideak eta txirindularitzak eman didaten oparia izan da bera ezagutzea. Arrastoa uzteko ez baita irabazlea izan behar, bene-benetako ondarea pertsona onek uzten dutelako.

Ez naiz idolatra sentitzen, baina bat izatekotan bera aukeratu nuke. *Radio Basque, Ministro, Bitxo, Pirri, Etxe-zuriko Bizipoz...* zaindu maite duzun hori.

Asteko kirolaria

“Zegaman giro berezia sortzen da eta mimoz nabil proba hori prestatzen”

Joan zen asteburuan Gontzal Murgoitio elorriarrak Espainiako Txapelketa irabazi zuen

Uztailean 18 urte egingo ditu Gontzal Murgoitio korrikalari elorriarrak. Durango Kirol Taldean dabil eta sasoi betean dago. Joan zen asteburuan, Espainiako Atletismo Federazioak antolatutako mendi lasterketen Espainiako Txapelketa irabazi zuen Todolellan (Castelló).

Atletismo Federazioak antolatutako mendi lasterketen Espainiako Txapelketa irabazi berri duzu. Zer moduz joan zen lasterketa?

Lasterketa oso ondo joan zen eta pozarren nago. Lehenengo, seniorrak irten ziren, nagusiak, eta handik denboratxo batera irten ginen gu, seniorretako lehen korrikalaria gure irteera puntura

heldu zenean, hain zuzen. Hasierratik, maila nagusiko hirugarren korrikalariagaz joan nintzen. Nire mailako hainbat korrikalarik jo zuten aurrera, baina lasterketak aurrera egin ahala denak aurreratzen nituen, eta azken kilometroak bakarrik egin nituen. **Sasoi onean zaudela erakutsi eta nagusitasunez irabazi zenuen. Esperotako emaitza izan da?**

Egia esanda, hainbat lagunek aurrean egon nintekeela esaten zidaten, lehenengo postuetan egoteko aukerak nintzela. Hori bai, inork ere ez zidan lehenengo postua aipatu, baina bai lehenengo hiruren artean egon nintekeela. Azkenean, proba irabaztea lortu

nuen. Gainera, egunean bertan gorputzak primeran erantzun zidan eta lasterketa benetan ona irten zitzaidan.

Behin Espainiako txapelketa irabazita, zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?

Urteko nire helbururik garrantzitsuen hemendik hilabete batera Zegaman jokatu den *Zegama junior* proba sasoi onean heltzea da. Iaz lehenengoz egon nintzen lasterketa horretan eta izugarri gustatu zitzaidan. Zegaman giro berezia sortzen da eta mimoz nabil proba hori prestatzen.

Zer du Zegamak?

Maila izugarria duten korrikalariak etortzen dira urtero Zegama-



GONTZAL MURGOITIO ESPARZA

Elorrio, Korrikalaria

ra. Salomon taldekoek eta Espainiako hainbat korrikalari onek ere parte hartzen dute, eta lasterketa polita izatea dakar horrek.

Asteburuan lortu duzun garaipenak lasaitasun puntu bat ematen du ekainaren 2an Zegaman jokatu den lasterketarako?

Bai. Asteburuko lasterketan sasoi onean nagoela ikusi dut, eta horrek lasaitu egiten nau. Bestalde, motibazio puntu bat ere ematen du gogor entrenatu eta lanean jarraitzeko.

GARA

PAPEREZKO EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

GARARI laguntzeko, hilaren 12an, igande honetan, GARA egunkaria + arte-lamina bat = 25 euro!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: 943 316 999 telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: www.naiz.eus



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//AUKERA

ZALDIBAR. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **120.000 €**

ABADIÑO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela handia. Ganbara. **149.000€**

SAN FAUSTO. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Dana kanpora begira. **85.000€**

DURANGO. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000 €** neg.

AUKERA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Garajea. **98.000 €**

KURUTZIAGA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. **99.000 €**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

ATXONDO. 85m². 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 terraza. 18m²-ko lonja. Guztiz berritua. **148.000 €**

MENDIZABAL. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Balkoia. Aukeran garaje itxia. **186.000€**

SAN IGNACIO. 82m². 2 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Ganbara eta garajea. **245.000 €**

SAN IGNACIO. 100m²-ko etxebizitza. 3 logela. 2 bainugela. Horma-armairuak. Sukaldea eta egongela handia. Terraza. Kanpoaldeko garajea. Eguzkitsua. Alokairuan erosteko aukerarekin **256.000 €**

IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukalde jangela. Egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000 €**

MIKELDI. Duplexa aukeran. Azkenehengo pisua. 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Garajea. ORAIN: **256.000€**

TABIRA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. **190.000€**

ZABALE. (Ask. Etorbidea). 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **170.000 €**

PLATERUEN PLAZA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **225.000 €**

ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **124.000€**

ANBOTO. Azken pisua. 3 logela. Bainugela. Egongela. Balkoia. Dena hegoaldera. **185.000€**

ABADIÑO. Familia bakarreko etxea. 484 m². Aukeran 1000 m² tako eraikitzeke solairua.

CENTRO. 100m. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. Garajea aukeran. **229.000 €**

ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dena kanpoaldera. Terraza. Garaje itxia. **220.000€**

IURRETA. 111m². 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela handia. Terraza 12m². Ganbara eta garajea. **276.000 €**

NEUVOS. A ESTRENAR. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000 €**

MATIENA. LAUBIDETA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. 2 Terraza. Biztak. Eguzkitsua.

BERRIZ. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **65.000€**

ZALDIBAR. 2 edo 3 logela. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. Berritua. **99.000€**

F.J.ZUMARRAGA 130m². 3 logela. (Logela printzipala bikoitza) 2 bainugela. Sukalde- jangela. Egongela. 2 Terraza. Ganbara. 2 kotxetarako garaje itxia eta ganbara (aukeran). **285.000€**

DURANGO. Eraikitzeke 650m²ko solairua.

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

ABADIÑO. 75m². **75.000 €**

ARTEKALE: 100m². **75.500 €**

ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m². EKONOMIKOA.

F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m². SALMENTA **150.000€** (Negoziazgarria)

IBAIZABAL. 50 m². Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. 500 €.

ASK. ETORBIDEA. Garaje itxia. **18.800 €**

//ETXEBIZITZA ALOKAGAI

IURRETA. Logela bateko, apartamentu berria, ganbara ere badu. 625.-€/hilean

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Eraikin berria. Logela biko eta hiruko, azken duplex-ak salgai. 178.000.-€ tik hasita.

DURANGO. Komentukale. Logela biko pisu ederra, sukaldea, egongela, komun bi, oso eguzkitzua, igogailua eta gasa badu.

DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trasteroa. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.

DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta ganbara. Bista ederrak.

BERRIZ. Hiru logelako pisua. Komuna eta egongela. Ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbararekin.

IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarrizko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeke baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeke lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. Euba. Txalet bifamiliari bat eraikitzeke lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ. Baserri erdia, 1.000 m² lur sailarekin. Sukaldea, terrazarekin, 3 logela, komuna, garajea, trastelekua, etabar. 180.000.-€

ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea oso polita.

ATXONDO. Marzana. Izugarrizko txaleta salgai ikuspegi bikaina, berri berri!!!

MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berritatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B^o Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berritatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeke.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000.-€ tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m²-ko lokal salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

ABADIÑO 160 m²
4 m altura
Abadiño lokala. Edozein aktibitate hasteko prest. Erakusleho handiarekin. Bainugela. Telebista eta telefonoa, aire egokitua, alarma eta abar.
215.000€

DURANGO 4 logela
2 balkoi
110 m²
SASIKOA: Egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela. Gas naturaleko berogailua. Hegoalde-mendebaldera begira, garajea eta ganbara.
195.000€

DURANGO 4 logela
DURANGO: Goien 100m². 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, gas naturaleko berogailua, garaje plaza (aukeran).
180.000€

DURANGO 3 logela
70 m²
ANTSO ESTEGIZ: 70m². 3 logela, berritutako bainugela duxarekin, egongela eta sukaldea jarrita. Egoera onean.
160.000€

ATXONDO 3 logela
90 m²
ATXONDO: Aukera! 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea jarrita. 12m² ko despentsa. Altzairuekin jantzita, ganbara eta garajea.
147.000€

DURANGO 3 logela
60 m²
SAN FAUSTO: 60m². 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela.
82.500€

//DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z= F

ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z= E

ERRETTENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / Garaje itxia aukeran / E.E.Z= E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€** / E.E.Z= F

KALEBARRIA 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. **82.000€** / E.E.Z= G

KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000€** / E.E.Z= Bidean

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ / ORAIN **256.000€** / E.E.Z= E

SASIKOA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€** / E.E.Z= E

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000€** / E.E.Z= E

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€** / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z= Bidean

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **288.000€**/E.E.Z= E

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E= Bidean

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€** / E.E.Z= F

BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia LEHEN 195.000€ / ORAIN **180.000€** / E.E.E= E

ELIZONDO AUZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / ORAIN **137.000€** / E.E.Z= G

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€** / E.E.Z= E

FAUSTE Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

SANTA MAÑA 3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€** / E.E.Z= G

//MATIENA

TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z= F

//MAÑARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€** / Txokoa aukeran / TE.E.E=Bidean

//OTXANDIO

ELIZABARRI 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E= F

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z= Bidean



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 m². Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsu San Fauston edo Durangon alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 644 93 06 79

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Pisu bila nabil, alokairuan. Pisu bat alokatu nahiko nuke, Durangon San Fauston, edo lurretan. Kontratuarekin, eta 500-600€ hilabetean ordaintzeko prest nago. Hurrengo telefonora deitu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Alokairuko etxe bila lurretan. Bikote gazte, euskaldun, langile eta

arduratsua alokairuko etxe bila gabiltza lurretan. Hemen gure Tel.: 688 64 60 23

Alokairuko etxe bila. Elorrixoko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

PERTSONAK ZAINDU

Esperientziadun umezaina. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644 41 11 74

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu. Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxe lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 68 39

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko. Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Eguerdietan eta

arratsaldeetan 6 retatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askoko esperientzia daukat. Irantzu Tel.: 644 41 11 74

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxe lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxe lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappz kontaktatu, gazteleraz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburutan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali

Tel.: 602 89 50 18 Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxe garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langilea lan bila. Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak edo haurrak zaintzen lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan. Tel.: 632 70 52 25

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxe lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu. Tel.: 632 35 60 66



ANA GALARRAGA ASTE HONETAN GABI DE LA MAZA

DOAN

Ttop euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.




ttop
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

Informazio gehiago:
ttop.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Botikak

BARIKUA, 10 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte

poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San

Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 11 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

ETXEBARRIA

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C -

DURANGO

CAMPILLO Montevideo

etorb. 24 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR

Errekakale 6. - **ELORRIO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 -

ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 -

ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte

poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 12 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 13 - 09:00-09:00

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte

poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San

Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 14 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C -

DURANGO

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte

poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San

Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 15 - 09:00-09:00

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San

Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 16 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte

poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San

Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Ainara!** Ondo ondo ospatu egune! Astelehenien pasta batzun zain egongo gara. Mosu handi bat!



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Lur (761. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zabalarra ikastetxeko LH 2. mailako ikasleak ANBOTO bisitatzera etorri dira asteon.



Oierrek lau urte bete zituen maiatzaren 3an. Musu handi bat Aitzolen, gurasoen eta aitite Valentinen eta amama Mari Carmenen partez.



Gure etxeko printzesak bost urte egin ebazan domekan. Zorionak, **Elene**, etxeko danon partez eta jarraitu holan gure bizitzak alaitzen. Mosu handi bat!



Atzo **Izarren** urtegune izan zan. Zorionak danon partez eta ondo pasau merendolan! Mosu pillo bat!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 17° / 10° ☁️

DOMEKA 🌧️ 17° / 9° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 15° / 7° ☀️

MARTITZENA 🌧️ 16° / 7° ☀️

EGUAZTENA 🌧️ 20° / 8° ☀️

EGUENA 🌧️ 22° / 10° ☀️

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

“Azal osasuntsu eta polit batean zimurrek badute bere lekua; bizitakoaren adierazle dira”

Gorputzaren azalagaz eta ingurumenagaz errespetagarriagoa den kosmetika naturala egiten dute Ainhoa Aramburuzabalak eta Ainara Beobidek. Otxandion dute laborategia, eta egindako produktuak saltzeko denda ere bai: Lavandula

Ainhoa Aramburuzabala Arregi (Oñati, 1974) eta **Ainara Beobide Urrutia** (Ubide, 1979) • Lavandula kosmetika naturala

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Emakume zein gizonentzat, gorputzeko eta aurpegiko azala zaintzeko kremak, seruma, ilea garbitzeko xanpuak eta umeentzako zorrientzako tratamenduak egiten dituzte, besteak beste, Lavandula-n. Ubiden duten ortuan hazitako landare eta loreak erabiltzen dituzte horretarako Ainhoak eta Ainarak; sendabelarrekin egindako ukenduetan ere bai. Badira 13 urte xaboi naturala egiteko elkartzen hasi zirela Ubiden, eta 2015ean afizioa ofizio bihurtzeko jauzia egin zuten. Otxandioko dendan, azoketan eta internet bitartez eskuratu daitezke produktuok, eta belar-denda edo saltoki ekologikoetan.

Lavandula, labandaren latinezko adiera da. Zergatik labanda?

A. A.: Dena du labandak. Ezau-garri piloa ditu eta gauza askotarako da onuragarria. Usain gozoa du, erlaxagarria da, koloretsua...

Nolatan egin duzue kosmetika naturalaren aldeko apustua?

Ainhoa Aramburuzabala: Amamak beti egin izan ditu ukenduak etxean, eta landareen propietateak ikusi izan digutu. Urrun joan barik, bertoko landareak apur bat ezagututa, onura asko egin daiteke. Jaten duguna gara, azalean ematen duguna. Horregatik apustu hau. Askotan behar du gara naturopatian eta dermoestetikan, eta ikasitakoa aplikatzeko aukera ikusi genuen, erakusteko ere bai.

Kosmetika naturala eta etikoa egiten dugu, ahalik eta poltsikorik gehienetara heltzeko modukoa. Oso pozgarria da bezero bati entzutea gure produktu batek on egin diola.

Azaleko arazo gero eta gehiago ei daude. Kosmetika naturala alternatiba da horren aurrean?

Ainara Beobide: Azoketan asko datoz aholku bila dermatitis atopikoa,

akne arrosa edo psoriasis dutelako. Ez gara medikuak, baina azala hidratatuta izaten lagundu genezake.

A. A.: Nabarmenak dira kosmetika naturalaren onurak. Azalagaz, ileagaz... suabeagoak dira. Adibidez, zahia kentzeko txanpu askok hori eta beste guztia garbitzen dute, dena suntsitzen dute, beste arazo batzuk sortuz.

A. B.: Kosmetika naturalean, azalak xurgatzen duen guztia naturala da.

Badakigu zer ematen dugun gorputzean?

A. A.: Gorputzean zer sartu gura duen kontziente denak goitik behera irakurriko du osagaien etiketa; janariagaz ere bai. Eta,

Berba bitan

Usain bat?

A. B.: Mirra

A. A.: Lora zuriena

Landare edo lore bat?

A. B.: Intsusa

A. A.: Labanda

Liburu bat?

A. B.: Trinidad

A. B.: Printze txikia

Paisaia bat?

A. B.: Ubide

A. B.: Itsasoa ikusten den bat

orokorrean, esango nuke gizartean gero eta gehiago begiratzen diegula erabilitako produktuen osagaiei. Kontzientzia gehiago dago.

Zeintzuk dira landareri preziatuenak?

A. B.: Kalendula da ezagunena, eta berberena eta intsusa. Baina labanda, iodo belarra, ezkaia eta erromeroa ere landatzen ditugu, estraktuekin ukendu eta kremak egiteko.

A. A.: Aitita-amamei entzundako betiko landareak dira. Sendabelarrik gehienak bertan jasotakoak dira. Baina badaude hemen hazten ez direnak, eta erosi egiten ditugu.

Azala ondo mantentzeko trukorik?

A. A.: Genetika aparte utzita, jatekoak eta atsedanak eragin zuzena dute, eta nerbioek. Hortik aurrera, azal motaren eta adinaren arabera zaindu behar dugu azala. Ezinbestekoa da azala ondo garbitzea beti. Gure barrukoaren ispilua da azala.

Badago zimurrak kentzeko produkturik?

A. A.: Kentzeko, ez. Baina azal osasuntsu eta polit batean zimurrek ere badute bere lekua; bizitakoaren adierazle dira. Barreagaz zimurrak irtetzen dira, pozaren isla dira. Azal osasuntsua izatea da gakoa.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eksklusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com